

altza

«Ausartak» obra berria du

Casares Kultur Etxeko otsaileko egitarauan «*Pakeari buruzko II Ihardunaldiak*» otsailaren 27tik martxoaren 3ra egingo zirela iragarri bazen ere, ez da horrela izango eta martxoaren 21etik 24era izango dira. Aurten goan Altzargi Gazte Taldeak intsumisioa gaia hartu nahi izan du aztergai, hori dela eta liizketaldiak, mahai-ingurua, hitzaldia eta bideo-foruma antolatuta dira.



Emakume talde hau gogor en-tsalatzen ari da hilaren 7ko estreinaldirako.

Korrika Altza eta Herrera inguruetara martxoan etorrriko dela jakinik, bi auzo hauetako elkarte ugari «*Altzako Euskal Jaiak*» antolatu dituzte martxoaren 16tik 18ra bitartean, besteak beste, «*Larrua Truck*» taldearen kontzertua, «*Kiki, Moko eta Koko*» pailazoekin korrika txikia, haur jaiak eta San Marcos mendira ibilaldia egingo dira.

datorren martxoaren 7an «*Ausartak*» Emakumeen Antzerki Taldeak, «*Casa Pura*» lauaren estreinaldia egingo du Emakumearen X Kultur Astearen barruan.

Lanaren zuzendariak, Josemak, dioten bezala «*Casa Pura*» putetxe baten historia da, 50. hamarkadan munduko edozein bazterretan kokaturiko burdel batean gertatzen denaren kontakizuna da.

Taularatuko duten lan honen historia Ausartak taldeko partaideei bururatu zitzaizen «*aurreko lauean tragikotasuna eta kolore zuri-beltza izan zen uagusi, aurten, kolore bizi-tan oinarriturik, zerbait alaiagoa ateraz*».

Altza, Martuteneko espetxea, Intxaurren eta Beasain dira martxoaren 7tik aurrera altzatar talde

honek bisitatuko dituen lekuak.

«*Ausartak*» antzerki taldea duela 3 urte hasi zen lanean Kultur Etxeko antzerki tailer modura, baina duela hilabete batzuk konturatu ziren ezin zutelako modu honetan aurrerapausu garrantzikorik eman eta «*Ausartak*» elkarte modura martxoan jarri ziren.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

DONOSTIA

HALCON

32 06 13-32 01 41

- BEREHALAKO MEZULARITZA
- HIRI BARRUAN, ESTATUAN ETA NAZIOARTEAN

Ametzagaina 70, EGIA

Karmengo Ama, 15
Tel. 27 32 38 - DONOSTIA

Ricardo taberna

GROS

ARTETXE JENERALAREN KALEA D - TFNOA.: 27 05 61

ZanpanzaR

ZANPANZAR

TABERNA EGIA

ZanpanzaR

